

## UDALAREN OSOKO BILKURA

2010eko martxoaren 25eko ohiko bilkura

### BERTARATU DIRENAK

#### ALKATE-UDALBURUA

EAJ-PNV.- ENEKO ARRUEBARRENA ELIZONDO JN.

#### ZINEGOTZIAK

EAJ-PNV.- AINARA URBIETA BERGARA AND.

EAJ-PNV.- BEATRIZ RESA BARDECI AND.

EAJ-PNV.- IÑAKI GOIKOETXEA GORDO JN.

EAJ-PNV.- M<sup>a</sup> CARMEN URBIETA GONZALEZ AND.

EAJ-PNV.- JON LOIZAGA CAYERO JN.

EAJ-PNV.-JON PELI LAZKANO ALZAGA JN.

EAJ-PNV.- JUAN CARLOS IBARRA ARETXABALETA JN.

EAJ-PNV.- AINARA GUZMÁN URRUTIA AND.

PSE-EE.- ELSA LOPEZ DE TORRE CAMPO AND.

PSE-EE.- LUIS MARIA PEREZ PEREZ JN.

PSE-EE.- PILAR GRADOS GARCIA AND.

PSE-EE.- J. ALFONSO LOPEZ AREVALILLO JN.

PSE-EE.- NEKANE JIMÉNEZ FERNANDEZ AND.

PSE-EE.- JUAN CARLOS MARTINEZ LLAMAZARES JN.

PP.- XABIER OLABARRIETA ARNAIZ JN.

PP.- ARTURO ALDECOA RUIZ JN.

PP.- FERNANDO PINTO PALACIOS JN.

EB-B.- IÑAKI GOMENDIORRUTIA SAINZ JN.

Leioako udaletxean, bi mila eta hamarreko martxoaren hogeita bosteko arratsaldeko zortziak eta bost direla, elizate honetako Udalaren Osoko Bilkura bildu da ohiko bilera egiteko. **Alkate-udalburua, ENEKO ARRUEBARRENA ELIZONDO jauna** izan da bileraren burua eta **behin-behineko idazkariak, JAVIER BOLINAGA LEKUE jaunak**, lagundu dio. Haiekin batera, orriaren ertzean agertzen diren zinegotziek parte hartu dute bileran eta izatez zein eskubidez Udalbatza osatzen duten kideen legezko gehiengo osatzen dute. Alkate-udalburu jaunak aurretik egin die ohiko bileran parte hartzeko deia, guztia Toki Araubidearen oinarriak arautu dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legearen 46.1 artikuluan ezarritakoa, aipatutako legearen 21.1.c) artikuluan azaldutakoa eta azaroaren 28ko 2.568/1986 Errege Dekretuak onetsi duen Toki Erakundearen Antolaketaren, Funtzionamenduaren eta Araubide Juridikoaren Erregelamenduaren 41.4 eta 80.1 artikuluetan xedatutakoa oinarritzat hartuta.

Adierazitako orduan eta lehenengo deialdian, Udalburutzak ekitaldia irekitzat jo du; jarraian, ohiko bilera honetako eguneko aztergaien zerrendan agertzen diren gaiak aztertu dituzte:

## I.- ERABAKITZEKOAK

### 1.- IGOGAILUAK INSTALATZEKO, ITURRIBIDE KALEKO 10, 11 ETA 12 ZENBAKIETAKO HIGIEZINETAKO FATXADAK ALDATZEARI BURUZKO XEHETASUN-AZTERKETAREN

**ALDAKETA BEHIN BETIKO ONESTEA.** Hirigintza eta Etxebizitza, Obra eta Zerbitzu, Mugikortasun eta Ingurumeneko Informazio Batzordearen 2010eko martxoaren 2ko 24. zenbakidun irizpenaren berri eman zaio Udalaren osoko bilkurari, osoko bilkurak berrets dezan. Hona hemen irizpenak dioena:

Osoko bilkurak 2007-10-02an egindako batzarrean hartu zuen 2. erabakiaren bitartez, Leioako Udalak behin betiko onetsi zuen Igogailuen instalazioak errazteko, Iturribide kaleko 10, 11 eta 12 zenbakietako higiezinetak fatxada aldatzeari buruzko xehetasun-azterlana.

Eragina zuten jabe-kideetatik gutxinegoak administrazioarekiko auzi-errekurtsoa jarri zuen Euskal Autonomia Erkidegoko Auzitegi Nagusiaren Administrazioarekiko Auzietako Salan, aurretik aipatutako erabakiaren aurka. 2009ko maiatzaren 7an, eskatzaileen asmoen aurkako epaia eman zen. Izan ere, eskatzaileok xehetasun-azterlanaren eta plan orokorraren aurka egin zuten, igogailuak eraikitzea saihesteko. Eskariaren zati bat baino ez da baietsi, eta, beraz, xehetasun-azterlana aldatu egin behar da. Igogailuak aurrekusi bezala instalatzearen ondorioz estututako zatietan, espaloia zabalera 1.30 metro izatetik 2 metrokoa izatera pasako da.

200-12-16an (sarrera-erregistroa: 10.115), Jabeen Erkidegoak xehetasun-azterlana behar bezala aldatuta aurkeztu zuen, epaiaren edukia betetzeko.

2010-02-12ko idazkiaren bidez (sarrera-erregistroa: 1.198), Pilar Díez Jiménez andreak eta beste batzuek alegazioen idazkia aurkeztu zuten, xehetasun-azterlanaren aurka zeudela azalduz. Arrazoiak honakoak izan dira, batez ere: segurtasunik eta osasunik gabeko lekuak sortuko dira eta *"aparkalekuak kentzeaz gain segurtasun falta badago, dendetara eta etxebizitzetara sartzea zailduko da eta ingurua debaluatu ahalko da"*.

Horren harira, udal Bulego Teknikoak txostena egin du. Bertan, Leioako Udalak, 2009ko maiatzaren 7ko epaian adierazitakoaren arabera, agiria izapidetu duela eta espaloia gutxieneko lodiera errespetatu duela adierazi da. Fatxadan igogailuak instalatzearen ontasunari buruzko iritzi ezberdinak bere garaian aztertu ziren, hasierako xehetasun-azterlana landu zenean eta Toki Administrazio honek ulertu zuen herritar gehienek instalazioa nahi zutela. Kalea oinezkoentzat prestatzeari dagokionez, alderdi hori xehetasun-azterlanetik at dago; dagoen bideragarritasuna aldatzeko udal-ahalmenean sartzen da. Hori horrela, egokia da alegazioa ezestea eta agiria behin betiko onestea.

**Hirigintza eta Etxebizitza, Obra eta Zerbitzu, Mugikortasun eta Ingurumeneko Informazio Batzordeak** iritzi du osoko bilkuraren erabaki egokiaren bidez honako erabakiak hartzea komeni dela:

- Ezetsi egingo da Pilar Díez Jiménez andreak eta beste batzuek aurkeztutako alegazioa, igogailuak instalatzeko, Iturribide kaleko 10, 11 eta 12. zenbakietako higiezinetak fatxadak egokitzeari buruzko xehetasun-azterlana aldatzeko espedientearen aurka jarritakoa.
- Behin betiko onetsiko da xehetasun-azterlana aldatzeko espedientea, Lurzoruari eta Hirigintzari buruzko ekainaren 30eko 2/2006 Legeko 98. artikuluan ezarritakoaren arabera.
- Behin betiko onetsitakoan, horri buruzko iragarkia argitaratuko da BAO-n, Hirigintzako Plangintza Araudia onetsi zuen ekainaren 23ko 2159/1978 Errege Dekretuaren 140.6. artikuluan agindutakoa betetzeko.

## **OSOKO BILKURAREN ERABAKIA**

Udalaren osoko bilkurak, **aho batez, erabaki du** behin betiko onetsiko dela Iturribide kaleko 10, 11 eta 12 zenbakietako higiezinetak fatxadak egokitzeari buruzko xehetasun-azterlanaren aldaketa, igogailuak ipintzeko, Hirigintza eta Etxebizitza, Obra eta

Zerbitzu, Mugikortasun eta Ingurumeneko Informazio Batzordeak emandako irizpenean adierazten den bezala.

**2.- IKEAN SARBIDE MEKANIKOAK JARTZEARI BURUZKO OBREN PROIEKTUA:** Tokiko Gobernu Batzarraren 2010eko martxoaren 9ko 77. zenbakidun irizpenaren berri eman zaio Udalaren osoko bilkurari, osoko bilkurak berrets dezan. Hona hemen irizpenak dioena, hitzez hitz:

Hirigintza eta Etxebizitza, Obra eta Zerbitzu, Mugikortasun eta Ingurumeneko Informazio Batzordeak 2010eko martxoaren 2an hartu zuen 23. zenbakidun irizpena gai honi buruzkoa da:

Arcain aholkulariak Ikea auzoan sarbide mekanikoak jartzeari buruz idatzi duen proiektuaren berri eman da. Proiektuaren egikaritze-aurrekontua kontratuko 691.929,00 eurokoa da (BEZa barne).

Proiektuak ibilbide irisgarria sortzen du Iturribide kalearen (18,1 kota) eta Ikearen artean (38,3 kota), eta, maila ezberdinetan, dauden etxebizitza-multzoetan bizi direnei arreta ematen die. Igogailuak erabiltzeak igoz nahiz jaisteko sarbidea bermatzen du eta plataforma ezberdinetatik mugimendu horizontalen bidez sar daiteke etxebizitza-multzo ezberdinetara.

Lursailaren orografia ikusita, hainbat irtenbide bertan behera utzi behar dira, besteak beste, Ikea kaleko trazadura jarraitzea, ez bailuke irisgarritasunari buruzko araudia beteko, ez igotzeko, ez jaisteko.

**Hirigintza eta Etxebizitza, Obra eta Zerbitzu, Mugikortasun eta Ingurumeneko Informazio Batzordeak** honako jarduerak egitea komeni dela iritzi du:

- Onetsi egingo da *"Ikean sarbide mekanikoak jartzeari buruzko proiektua"* izeneko, *Arcain Ingeniería y Arquitectura enpresak idatzi duena eta 639.929,00 euroko zenbatekoa duena (BEZa barne).*
- 691.929,00 euroko zenbatekoa gordailutuko da, aplikagarri zaion aurrekontu-partidaren pentzura.
- Udal Bulego Teknikoak obra hau lehiaketa irekiaren bidez esleitzeko beharrezko espedientea egingo du.

TOKIKO GOBERNU BATZARRA aipatutako proposamenaren alde agertu da eta **ALKATETZA-UDALBURUTZAK** berau onesteko **dekretua** eman du.

#### **EZTABAIDA:**

**PSE-EEko J. Alfonso López Arevalillo jaunak** esandakoaren laburpena:

Puntu honi dagokionez Leioako Udalaren Talde Sozialistak, lehenik eta behin, ARCAIN enpresako teknikariei zorionak eman nahi dizkie Ikea Mendia Auzorako sarbide mekanikoak ezartzeko proiektu bikainagatik. Proiektu hau, gainera, auzokoek aspalditik udal arduradunei egiten zieten eta erantzunda ikusten ez zuten eskaerari erantzuna emareko beharrezko arintasun eta azkartasunaz egin dute.

Aldi berean bere poza agertu nahi izan dugu laster udalerriko alderdi jakin batzuetan hain beharrezkoa den azpiegitura egongo delako, izan ere, bere bizi-baldintzak, zalantzarik gabe, garatuta dauden baldintza geografikoek zailduta daude eta talde honek berau eskatu zuen aurrekontua onartzeko azkeneko prozesuan, bai gobernu-taldearekin aurretik izandako hartu-emanetan bai osoko bilkuraren eztabaidan bertan.

Hala eta guztiz ere, kritikak gobernu-taldeari zuzendu behar zaizkio proiektuaren onespenerari emandako kudeaketagatik.

Izan ere, gogorarazi behar dugu berau 2010. urteko martxoaren 2ko Hirigintzako Batzordean aurkeztu zutela, eta bozeramaile honi kopia, euskarri informatikoan, biharamunean eman ziotela, hurrengo eguneko aztergaien zerrendarekin: Ikeako sarbide mekanikoen instalazioari buruzko obra-proiektua, hau da, ez zen adierazten aurkezteko egun berean bozkatu behar zenik eta ez zen horrela gertatu.

Esan duenez, PSE-EEko Udal Taldeak ez du adierazpenik egin batzordean, beste modu batera egiterik ez zegoena, aipatutako proiektua aurretik ezagutzeko eta, auzoko auzotarrekin aztertu eta egiaztatutakoan, proiektuak iradoki zitzakeen zalantzak edo balizko ordezkoi aukerak agertzeko aukerarik eduki ez zuen neurrian, eta gaineratu du martxoaren 9ko Tokiko Gobernu Batzarrean proiektua behin betiko onestearen sorpresa desatsegina izan dutela, ustez taldeek aho batez aldeko irizpena eman ondoren.

Horregatik, momentu honetan proiektua osoko bilkuran onartu arren, esan du bere ezinegona agertu nahi dutela, eta Batzordeburuari eskatu dio oposizioko talde politikoei proiektu eta azpiegitura mota honen gainean iritzia eman eta, beharrezkoa bada, egokiak diren ordezkoi aukerak eta iradokizunak plazaratzeko denbora nahikoa uzteko.

### **OSOKO BILKURAREN ERABAKIA**

Udalaren Osoko Bilkurak, **aho batez erabaki du** Ikeako sarbide mekanikoak ezartzeari buruzko obra-proiektua **onartzea**, Hirigintza eta Etxebizitza; Obra eta Zerbitzuak; Mugikortasun eta Ingurumeneko Informazioko batzordearen irizpenak egindako termino berberetan.

**3.- HAPO-REN ALDAKETA ZEHATZA BEHIN-BEHINEAN ONESTEA, EUSKAL AUTONOMIA ERKIDEGOKO AUZITEGI NAGUSIAK 18. ARLOKO (LAMIAKOKO UR ZIKINEN ARAZTEGIAREN AZPIEGITUREN SISTEMA OROKORRA) LURZORUA SAILKATZEARI BURUZ EMANDAKO EPAIA BETETZEKO.** Hirigintza eta Etxebizitza, Obra eta Zerbitzu, Mugikortasun eta Ingurumeneko Informazio Batzordearen 2010eko martxoaren 9ko 34. zenbakidun irizpenaren berri eman zaio Udalaren osoko bilkurari, osoko bilkurak berrets dezan. Hona hemen irizpenak dioena:

Irakurri da Udal Plangintzako Aholku Batzordeak HAPOnen aldaketa zehatza behin-behinean onesteko espedienteri buruz egindako aktaren edukia. Aldaketaren xedea Euskal Autonomia Erkidegoko Auzitegi Nagusiak 18. arloko (Lamiakoko ur zikinen araztegiaren azpiegituren sistema orokorra) lurzorua sailkatzeari buruz emandako epaia betetzea da.

“Udal Plangintzako Aholku Batzorde honek 2009ko azaroaren 24ko bileran hartutako 9. irizpenaren bidez, aldeko txostena eman zen HAPOnen aldaketa zehatza behin-behinean onesteko espedienteari buruz. Aldaketaren xedea Euskal Autonomia Erkidegoko Auzitegi Nagusiak 18. arloko (Lamiakoko ur zikinen araztegiaren azpiegituren sistema orokorra) lurzorua sailkatzeari buruz emandako epaia betetzea da.

Aipatutako espedientea Euskal Autonomia Erkidegoko Auzitegi Nagusiaren 2003-01-21ko epaia betetzeko idatzi da. Aipatutako epaia Auzitegi Gorenaren 2006-07-04ko epaiak berretsi zuen. Azken horrek HAPOnen 18. arloan dauden lursailak urbanizagarri ordeztu urbanizaezin gisa sailkatu zituen, Leioako HAPOrri jarraiki.

Horretarako ezarritako epean bi alegazio aurkeztu zituzten 2010eko urtarrilaren 13an (sarrera-erregistroak: 200 eta 202, hurrenez hurren), arloko lurzoruaren jabe diren merkataritza-etxeek: Bilbao Bizkaia Kutxak (aurrerantzean BBK) eta Inmobiliaria Lamiakok.

Bi alegazioek honakoa eskatu dute: Auzitegiaren lurzoru urbanizaezina urbanizagarri gisa sailkatzeko hartutako erabakia urbanizagarri programatu gisa zehazteko, eta ez urbanizagarri ez programatu gisa (Udalak proposatu bezala).

BBK-k bere alegazioan aitortu duen eran, eztabaida hau lurzoruaren sailkapenari buruzkoa da. desjabetzeko ahalmena erabiliz gerora balora dadin. Plan Orokorren dokumentazio grafikoan honakoak sartzen direla ulertzen du: 18. arloko espazioari buruzko diseinu zehatza bai eta perimetroko bideei, erreka bideari eta Lamiakoko korridoreari buruzko diseinu zehatza ere, bi bideen lodiera, bidegurutzeetako bideen kota, eta beste zehapen oso zehatzak ezarrita. Jarduketa Programan ez da ur zikinen araztegiaren egikaritza sartzen. Egikaritza hori planeko beste agiri batzuetan dagoela (neurri batean programatuta) ulertu behar da.

Leioako Udalak plangintzaren aldaketa idazteko kontratatutako taldeak (Arkitektura eta Hirigintza Bulegoa, S.A.) eta Aytasa (Abogados y Técnicos Asociados, S.L.) merkataritza-etxeak (aldi berean alegazioen edukiaren berri ematen du), lurzoru urbanizagarri ez programatu gisa sailkatzeko irizpideari eusten dio, 18. arloan sartutako sistema orokorrak ez daudelako Jarduketa Programaren Plan Orokorren barruan ulertzen delako (ez lehen lauhilekoan ez bigarreanean), eta memorian ez direlako atxiki "*sektore batera ere ez eta lurzoru urbanizaezinean atxikitzen ez diren beste sistema orokor batzuk daudelako, logikoa den bezala, esleitu zaien sailkapenagatik*". Era berean, ekonomia- eta finantza-azterlanaren agirian ez da gasturik aurreikusi azpiegitura eta ekipamenduko bi sistema orokorrak (18. arloan aurreikusitakoak) gauzatzeko.

Hori horrela, proiektua idatzi duen taldeak, Plan Orokorreko dokumentazio grafikoa eta idatziaren azterketa xehatua egin ondoren, honakoa adierazi du: "*laburbilduz, araztegiaren gastuaren kostuari eta aurreikuspenari eta Lamiakoko aparkalekuari buruzko aipamenik ez egoteak 18. arloko Sistema Orokorren "programazio-falta" berresten du, zaila baita Udalaren, Ur Partzergoaren eta Eusko Jaurlaritzaren artean aldi baterako epe zehatzak dituzten konpromiso ekonomikoak zehaztea*".

Aytasa merkataritza-etxeak proiektua idatzi duen taldearen irizpideak berresten ditu. Plan Orokorretik ezin dela lurzoru urbanizagarri programatu gisa sailkatzeari buruzko betebeharra ondorioztatu ulertzen du. Hori horrela, dokumentazio grafikoaren eta idatziaren artean aldeak badaude arau idatzietan jasotakoak lehentasuna duela hartu behar da kontuan, Plan Orokorren Arauetako 1.1.3 artikuluan beren-beregi jaso den eran.

Alegazioen eta plangintzako aldaketaren edukia eta Aytasaren txostena aztertu ondoren, udal Bulego Teknikoak, 2010eko martxoaren 5eko txostenaren bidez, hasieran onesteko fasearen barruan, idazkuntzan, plangintzaren aldaketaren espedientea oso-osorik mantendu behar dela uste du, 18. arloko lurzoru urbanizagarri ez programatu gisa sailkatu behar dela uste baitu. Lurzoru urbanizagarria programatu gisa edo ez programatu gisa sailkatzeko irizpidea zehazten duen agiria Jarduketa Programa da. Programan ez dira 18. arloan ezarri beharko sistema orokorrak sartzen, ez lehenengo lauhilekoan, ez bigarreanean.

Dokumentazio grafikoan sistema orokorren kokaleku zehatza eta ondoko bideen kokalekua bezalako alderdiak sartzeak ez du esan nahi zuzenean "*lurzoru programatzen*" denik. Plan Orokorrean (37-Ondiz, 38-Leioandi, 39-

Zaltune, 44-Torresolo) urbanizagarri ez programatu gisa sailkatutako beste zona batzuk egoteak irizpide hori berresten du. Planean sistema orokorrak eta bideak ere mugatzen dira. Hori guztia, udal-plangintzaren zuhurtasunaren arabera, espediente honetan Euskal Autonomia Erkidegoko Auzitegi Nagusiko administrazioarekiko auzietako salaren 2009ko martxoaren 6ko epaiak berenberegiz aitortutakoa, eta lurzorua berriz sailkatzea behartzen duen epaiaren edukiaren gauzatzea interpretatuz.

**Udal Plangintzaren Kontseilu Aholkulariak**, bertaratutakoen aho batez, Udalaren osoko bilkurak honako jarduerak egitearen aldaketako txostena egin zuen:

–BBK eta Inmobiliaria Lamiako merkataritza-etxeek aurkeztutako alegazioen edukia ezestea, proiektua idatzi duen taldeak, Aytasak eta udal Bulego Teknikoak adierazitako argumentuetan oinarrituz.

–Lurzoruaren sailkapena urbanizagarri ez programatu gisa mantentzea, hasietako onespeneren agiriaren arabera.

–HAPOn aldaketa zehatzaren espedientea behin-behinean onestea, Euskal Autonomia Erkidegoko Justizia Auzitegi Nagusiaren epaia betetzeko. Epaia hori 18. arloko lurzoruaren sailkapenari buruzkoa da (Azpiegituren Sistema Orokorra, Lamiakoko Ur Zikinen Araztegia).“

**Hirigintza eta Etxebizitza, Obra eta Zerbitzu, Mugikortasun eta Ingumeneko Informazio Batzordeak** honako irizpena eman zuen: egokia da Udal Plangintzako Aholku Batzordearen txostenaren edukia osorik berrestea, eta espedientea Udalaren Osoko Bilkurari bidaltzea, berau behin-behinean onetsi dezan eta Euskal Autonomia Erkidegoko Lurralde Antolamenduko Batzordeari berbidaltzea, Udalak behin betiko onetsi ahal izateko txostena bidaltze aldera. (2/2006 Legeko 90.6 eta 91.2 artikulua).

#### **OSOKO BILKURAREN ERABAKIA**

Udalaren osoko bilkurak **aho batez onetsi du** HAPOn aldaketa zehatza behin-behinean onestea, Euskal Autonomia Erkidegoko Auzitegi Nagusiak 18. arloko lurzoruaren sailkapenari buruz (Azpiegituren Sistema Orokorra, Lamiakoko Ur Lohien Araztegia) emandako epaia betetzeko. Hori guztia, Hirigintza eta Etxebizitza, Obra eta Zerbitzu, Mugikortasun eta Ingurumeneko Informazio Batzordeak emandako irizpenean adierazten den bezala.

**4.- PLAN OROKORRAREN ALDAKETA ZEHATZA HASIERAN ONESTEA. 39. SEKTOREARI (ZALTUNE) BURUZKOA. INGURUMENAREN GAINEN ERAGINAREN BATERAKO EBALUAZIOA AZTERTZEKO AGIRIAREKIN BATERA.** Hirigintza eta Etxebizitza, Obra eta Zerbitzu, Mugikortasun eta Ingurumeneko Informazio Batzordearen 2010eko martxoaren 9ko 35. zenbakidun irizpenaren berri eman zaio Udalaren osoko bilkurari, osoko bilkurak berrets dezan. Hona hemen irizpenak dioena:

Irakurri da Udal Plangintzako Aholku Batzordeak 39. sektoreko (Zaltune) Plan Orokorren Aldaketa Zehatza eta Ingurumenaren gaineko Eraginaren Baterako Ebaluazioa Aztartzeko agiria onesteko espedienteari buruz egindako aktaren edukia.

“Udal Zerbitzu Teknikoek HAPOn lurzoru urbanizagarri ez programatuko eremu bat arautu zela (Zaltunen) jakinarazi da. Horren helburua, hirugarren sektoreko enplegua arloa sortzeko, Erandioko Udalarekin batera kudeatzeko.

Ondorioz, beren aurreikuspenak gauzatzea ahalbidetuko zuen Plangintza eta Kudeaketa agiriak idatz idiren (Urbanizatzeko Jarduketa Programa, Plan Partziala, Urbanizazio Proiektua eta Birpartzelazio Proiektua).

Urbanizazio Proiektua idatzi zenean, Foru Aldundian errepideen gaineko eskumena duen Sailera bidali zen, egiaztatua izateko eta eremutik kanpo lursailak okupatzeko beharra ondorioztatu zen, bidearen betekizunak betetze aldera. Horrek guztiak plangintza aldatzeko espedientea egiteko beharra sortu da, sektorera behintzat atxikitako bideko beharreko lursailak sartzeko.

Horren harira, eta sektorera sartzeko azalera ez urbanizagarri gisa sailkatu zegoenez, ingurumenaren alorreko araudia betetzea beharrezkoa da. Horretarako, ingurumenaren gaineko eraginaren baterako ebaluazioa egingo da, aipatutako araudian zehaztutakoaren arabera idatzita eta dagokion faseak gauzatura (erreferentzia-agiria eta aurre-txostena).

Hori guztia dela eta, Euricosi Inmuebles 10 S.L. merkataritza-etxeak, 2010-02-10eko idazkiaren bidez (sarrera-erregistroa: 1.096), Plan Orokorra aldatzea ahalbidetuko duen espedientea hasteko eskatu du, Erandioko Udalarekin batera.

Plan Orokorren aurreikuspenak mantendu dira, aurreko ataletan adierazitakoa sartuta.

**Udal Plangintzako Aholku Batzordeak**, adierazitako aurrekariak ikusita, aipatutako espedientearen aldeko txostena eman du, bertaratutakoen aho batez, udalaren osoko bilkurara igor dadin, hasieran onesteko.”

### **Hirigintza eta Etxebizitza, Obra eta Zerbitzu, Mugikortasun eta Ingurumeneko Informazio Batzordeak** honako jarduerak egitea komeni dela iritzi du:

- Plangintzako Aholku Batzordeak hartutako irizpena osorik onartzea.
- Osoko bilkuraren erabakiaren bidez, hasieran onetsi egingo da aipatutako plangintzaren aldaketa, Ingurumenaren gaineko Eraginaren Baterako Ebaluazioaren Azterlanarekin batera.
- Hasieran onetsi ondoren, espedientea jendaurrean jarriko da berrogeita bost eguneko epean, BAO eta egunkarietan iragarkiak argitaratuz.
- Plangintzaren aldaketa honek egiturazko antolamenduari eragiten dionez, hurrengo izapide hauek egin beharko dira:

- \* Herritarrek parte hartzeko programa gauzatzea, ekainaren 30eko 2/2006 Legearen 108. artikuluan adierazitakoaren arabera. Horretarako, herritarrei postontzietan uzten zaien udal-aldizkarian espedienteari buruzko artikulua edo laburpena argitaratuko da, espedientea jendaurrean agertzeko epeak irauten duen bitartean.
- \* Sektore-eskumena duten administrazioek txostena emateari dagokionez, URA Uraren Euskal Agentziari (Eusko Jaurlaritza) eta Bizkaiko Foru Aldundian errepideen gaineko eskumen duen Sailari txostena eskatuko zaie.

### **OSOKO BILKURAREN ERABAKIA**

Udalaren Osoko Bilkurak, **aho batez erabaki du** 39 Sektoreko (Zaltune) Plan Orokorren Xedapen-aldaketa hasiera batean onartzea, ingurumeneko inpaktuaren baterako ebaluazioko azterlanaren dokumentuarekin batera, Hirigintza eta Etxebizitza; Obra eta Zerbitzuak; Mugikortasun eta Ingurumeneko Informazioko batzordearen irizpenak egindako termino berberetan.

**5.- LOKALAK GARBITZEKO ZERBITZUAREN KONTRATUAREN 5. ALDAKETA, ZERBITZUKO AZALERA HANDITZEAREN ETA KONTRATATUTAKO PERTSONEN ZERRENDA ONESTEAREN ONDORIOZ.** Hirigintza eta Etxebizitza, Obra eta Zerbitzu, Mugikortasun eta Ingurumeneko Informazio Batzordearen 2010eko martxoaren 9ko 36. zenbakidun irizpenaren berri eman zaio Udalaren osoko bilkurari, osoko bilkurak berrets dezan. Hona hemen irizpenak dioena:

Udaleko Zerbitzu Teknikoek jakinarazi dute, Udalaren osoko bilkurak 2003-04-11n hartutako 3. zenbakidun erabakiaren bidez, Urazca Servicios y Medio Ambiente S.A.k eta Halsá S.L.k osatutako ABEEri udal-lokalak garbitzeko zerbitzua esleitu zitzaioela.

Aipatutako kontratuak lau aldaketa izan ditu. Aldaketok 11, 2, 7 eta 3. erabakien bidez onetsi ziren, 2006-06-29, 2007-04-27, 2008-05-29 eta 2009-03-26ko osoko bilkuretan, hurrenez hurren.

Une honetan asmoa da Udaleko Bulego Teknikoak eta enpresa adjudikaziodunak ados jarrita gauzatu nahi duten 5. aldaketa onestea. Horrek hileko kanona modu honetara handitzea ekarriko luke (BEZa barne):

<b>Kontzeptua</b>	<b>Aurreko kanona</b>	<b>Proposatutako kanona</b>	<b>Prestazio berriaren data</b>
San Bartolomeko Kultur Aretoa	1.595,34 €	2.422,92 €	2009-10-01
Gizarte Zerbitzuak II (Sabino Arana etorbidea, 67)	---	794,87 €	2009-10-19
Haurreskola	---	1.083,44 €	2010-02-01
Gaztegunea	---	3.823,10 €	2010-04-01

Bestalde, eta laster zerbitzu honen epea amaituko denez, kontratu berrirako subrogatzeko eskubidea izango duten kontratatutako langileen zerrenda onetsi behar da. Hori horrela, eskubide hori izango luketen 63 langileen zerrenda aurkeztu da.

**Hirigintza eta Etxebizitza, Obra eta Zerbitzu, Mugikortasun eta Ingurumeneko Informazio Batzordeak** Udalaren osoko bilkurak honako jarduerak egitea komeni dela iritzi du:

- Kontratua aldatuko da, adierazi diren zehaztasunak bilduta.
- BAOn beharrezko iragarkia argitaratzea.
- Espedientea bidaltzea Kontuen Auzitegiari.
- Subrogatzeko eskubidea duten kontratatutako langileen zerrenda onestea.

### **OSOKO BILKURAREN ERABAKIA**

Udalaren Osoko Bilkurak, **aho batez erabaki du** lokalak garbitzeko zerbitzuaren kontratuaren 5. aldaketa onartzea prestazioaren xede den azalera zabaldu delako, eta kontratatutako pertsonen zerrenda onartzea, Hirigintza eta Etxebizitza; Obra eta Zerbitzuak; Mugikortasun eta Ingurumeneko Informazioko batzordearen irizpenak egindako termino berberetan.

**6.- UDAL-LOKALAK GARBITZEKO ZERBITZUAREN 2010. URTEKO KANONA BERRIKUSTEA:** Ogasun, Ondare eta Kontuen Informazio Batzorde Bereziaren 2010eko

martxoaren 2ko 26. zenbakidun irizpenaren berri eman zaio Udalaren osoko bilkurari, hark berrets dezan. Hona hemen irizpenak dioena:

Udalaren Osoko Bilkurak, 2006/04/11n hartutako 3. erabakiaren bidez, udal-lokalak garbitzeko zerbitzua Urazcak eta Halsak osatzen duten ELEXALDE ABEEri adjudikatu zion. Zenbatekoa: 1.555.454,91 € gehi BEZa (17.887,02), hau da, 1.572.741,93 € (BEZa barne).

Aztertu da ELEXALDE ABEEk aurkeztutako idazkia. Horretan zerbitzuaren kontratuaren 2010. urteko kanona zerbitzugintzaren hasieratik (2008ko abendua) 2009ko abendura arte doan tarteko kontsumo-prezioen indizearekin berrikusteko eskatu zuten. Indize hori Ekonomia eta Ogasun Ministerioaren Estatistikako Institutu Nazionalak argitaratzen du, eta Bizkaiko Lurralde Historikorako % 1,2 da.

Aztertu da kontratuaren 3. klausula; horren bidez adierazi da bi urtez ezarri dela, eta beste bi urtez luza daitezkeela (2010/06/19an amaituko da).

Aztertu da Adjudikatzeko lehiaketa eraendu zuten administrazio-baldintzen agiriaren 20. klausula. Horretan adierazten denez, urtero indarrean dagoen kontratuaren prezioa berrikusiko da Bizkaiko Lurralde Historikorako KPIk dena delako aldia baino lehenagoko 12 hilabeteetan eduki ahal dituen igoera edo jaitsierekin. Berrikuspenak egutegiko urteko bakoitzeko abenduaren 31n egingo dira. KPI hori Ekonomia eta Ogasun Ministerioaren Estatistikako Institutu Nazionalak argitaratzen du.

2007/02/27an Tokiko Gobernu Batzarrean hartu zen Alkatetzaren 148. Ebazpenaren bitartez, zerbitzua handitzea onetsi zen, Sakoneta kiroldegiko igerilekuko hondoa astean beste 3 egunetan garbitzeko. Zenbatekoa hileko 598,87 €-koa (BEZa barne) izan zen, eta gerora 2006an sinatutako kontratuan sartu zen.

Oinarria: Berrikuspenera egin dute lehiaketa eraendu duen baldintza-agiriko 20. klausulan aurreikusita dagoenaren arabera. 2008ko eta 2009ko prezioen laburpena, % 1,2ko igoerarekin, hau da:

UDAL-ERAIKIN ETA -LOKALAK	2009. URTEA	2010. URTEA
SAN BARTOLOME HI	6.528,36 €	6.606,70
ARTAZA HI	7.311,93 €	7.399,67
LAMIAKO HI	8.750,30 €	8.855,30
TXOMIN ARESTI HI	9.358,12 €	9.470,42
MENDIBILE HI	3.263,54 €	3.302,70
UDALETXEA	7.373,25 €	7.461,73
BEHARGINTZA	1.503,60 €	1.521,64
LANGILERIA 180	581,39 €	588,37
BULEGO TEKNIKOAK	2.502,51 €	2.532,54

DENA PLANA (SAKONETA KIROLDEGIAREN ETXABEA)	1.754,21 €	1.775,26
SAKONETA KIROLDEGIA (Zabaltzea)	27.661,11 €	27.993,04
KANDELAZUBIETA KIROLDEGIA (Zabaltzea)	4.294,16 €	4.345,69
SARRIENAKO INSTALAZIOAK	10.841,78 €	10.971,88
ONDIZKO PROBALEKUA	768,18 €	777,40
KULTUR LEIOA	18.155,69 €	18.373,56
SAN BARTOLOME KULTUR ARETOA	1.375,29 €	1.391,79
LAMIAKO ANTZOKIA	618,88 €	626,31
TXORIERRI KULTUR ARETOA	550,11 €	556,72
ERREKALDEKO ERRETIRATUEN ETXEA	5.294,19 €	5.357,72
LAMIAKOKO ERRETIRATUEN ETXEA	1.057,43 €	1.070,12
PINUETA ADINEKOEN ETXEA	2.924,25 €	2.959,34
TXORIERRIKO ADINEKOEN ETXEA	777,64 €	786,97
ERREKALDE ERRETIRATUEN ETXEKO TABERNAKO KRISTALAK	173,60 €	175,68
PINUETA ADINEKOEN ETXEKO TABERNAKO KRISTALAK	264,33 €	267,51
LAMIAKO ERRETIRATUEN ETXEKO TABERNAKO KRISTALAK	339,10 €	343,16
UDAL-ALDAGELA ETA -BILTEGIAK	1.928,27 €	1.951,41
AGIRITEGIA	501,20 €	507,21
ANDRAK	1.002,40 €	1.014,43
Errota Zaharra	88,86 €	89,93
GIZARTE ZERBITZUAK	1.503,61 €	1.521,65
<b>IBARLAN ERAIKINA</b> Hasiera: 2009/01/20	6.042,49 €	6.115,00

<b>GUZTIRA</b>	135.089,78 €	136.710,86
BEZa (% 16)	21.614,37 €	21.873,74
<b>GUZTIRA, BEZa barne</b>	<b>156.704,15 €</b>	<b>158.584,60</b>

Halaber, Soinu Atadia Fundazio Publikoa eta Euskararen Erakundea Erakunde Autonomoen garbiketa-zerbitzuaren prezioak berrikustea proposatu dute.

**Ogasun, Ondare eta Kontuen Informazio Batzorde Bereziak** honakoa egitea egokia dela adierazi du:

1. Udal-lokalak garbitzeko zerbitzuaren kanona % 1,2 igotzea onestea, kontratua amaitzen den datara arte (2010/06/19).
2. ABEEK proposatutako prezioen berrikuspenaren berri ematea erakunde autonomoei, erakunde horietako Zuzendaritza Batzarrek onets dezaten berrikuspena, 2010/06/19ra arte.
3. Kontratazioko udal-zerbitzuek kontuan har dezatela kontratu honen luzapena 2010/06/19an amaitzen dela.

### OSOKO BILKURAREN ERABAKIA

Udalaren osoko bilkurak **aho batez erabaki du** Udal lokalak garbitzeko zerbitzuaren 2010. urteko kanonaren berrikuspena onestea, Ogasun, Ondare eta Kontuen Informazio Batzorde Bereziak emandako irizpenean adierazten den bezala.

**7.- KONPROMETITU GABEKO DIRUZAINTZAKO GERAKINAREN PENTZURA KREDITUAK ALDARAZTEKO LEHENENGO ESPEDIENTEA:** Ogasun, Ondare eta Kontuen Informazio Batzorde Bereziaren 2010eko martxoaren 16ko 49. zenbakidun irizpenaren berri eman zaio Udalaren osoko bilkurari, hark berrets dezan. Hona hemen irizpenak dioena:

2010eko ekitaldiko aurrekontuen bilakaera kontuan hartuta, gai horretako legezko aurreikuspenekin bat etorriz, beharrezkoa da kredituak aldarazteko espedientea tramitatzea, udal zerbitzuen beharrezko aurrekontuan hasieran aurreikusitako gastu-aurreikuspenetara egokitzeko.

Hori horrela, Toki Ogasunen testuategina arautu duen martxoaren 5eko 2/2004 Errege Dekretuak eta berau garatu duen apirilaren 29ko 500/1990 Errege Dekretuak hainbat espediente ezartzen dute aurrekontua garatzen deneko ekitaldiko diru-sarrerara eta gastuetara moldatzeko. Era berean, Bizkaiko Lurralde Historikoko araudi espezifikoak, Bizkaiko Lurralde Historikoko Toki Erakundearen Aurrekontuei buruzko abenduaren 2ko 10/2003 Foru Arauak eta gainerako foru dekretuek ere kredituak aldarazteko espedienteak aurreikusi dituzte.

### 2009KO DIRUZAINTZAKO GERAKIN LIKIDOAREN PENTZURA KREDITUAK ALDARAZTEKO LEHENENGO ESPEDIENTEA 2010eko EKITALDIA

KREDITU-ALDARAZPEN MOTA	KREDITUAREN JATORRIZKO PARTIDA (Diru-sarreren aurrekontua)	Kredituak	KREDITUAK JASOKO DITUZTEN PARTIDAK (gastuen aurrekontua)	Kredituak
KONPROMETITU GABEKO GERAKINA	870/01 DIRUZAINTZAKO GERAKINA	44.304,76 €	01100/91140/2269900 ZEHAZTU GABEAK	44.304,76

**PARTIDA, GUZTIRA 44.304,76 €**

**44.304,76 €**

Ohiz kanpoko kredituak eta kreditu-gehigarriak onesteko eskumena udalaren osoko bilkurari dagokio, Toki Ogasunak arautzen dituen Legearen testu bategineko 177.2 artikuluan eta apirilaren 20ko 500/1990 EDren 37. eta 38. artikuluetan xedatutakoaren arabera, aurrekontuek dituzten izapide eta betekizunei eutsita. Kredituak aldarazteko espediente horiek onesteko quorum berezirik ezarri ez denez, nahikoa izango da aldeko botoen gehiengo sinplea (apirilaren 2ko 7/1985 Legea).

Bizkaiko Lurralde Historikoko Toki Erakundeen Aurrekontuei buruzko abenduaren 15eko 10/2003 Foru Arauaren 34.2. artikulua arabera, aldaketa diruzaintzako gerakin likidoaren kontura finantzatu da.

Aplikagarriak izango dira Foru Arau horren 15, 17 eta 18. artikuluek aipatzen dituzten Aurrekontu Nagusien informazio, erreklamazio, publizitate eta errekurtsioei buruzko arauak.

Aurretik aipatu den araudiaren arabera, adierazi behar da, izapidetzeari dagokionez, espediente guztiek Kontu-Hartzailatza Sailaren aurreko txostena behar dutela.

**Ogasun, Ondare eta Kontuen Informazio Batzorde Bereziak** honakoa egitea egokia dela adierazi du:

1. Kredituak aldarazteko lehen espedientearen (irizpen honetan adierazitakoa) aldeko irizpena ematea, 2009ko konprometitu gabeko gerakinaren pentzura.
2. Berau onesteari buruzko puntua Udalaren Osoko Bilkurak egingo duen hurrengo bileraren aztergaien zerrendan sartzea.
3. Espedientea jendaurrean azalduko da 15 eguneko epean eta, horretarako, horri buruzko iragarkia argitaratuko da Bizkaiko Aldizkari Ofizialean. Epe horretan interesdunek espedientea aztertu eta egoki deritzen erreklamazioak egin ahal izango dituzte. Espedientea jendaurrean azaltzeko epean alegaziorik aurkeztuko ez balitz, berori behin betiko onetsizat hartuko litzateke, hori guztia Toki Erakundeen Aurrekontuei buruzko abenduaren 2ko 10/2003 Foru Arauaren 15. artikuluan, Toki Ogasunen testu bategina arautu duen martxoaren 5eko 2/2004 Legegintzazko Errege Dekretuan eta berau garatzen duen apirilaren 29ko 500/1990 Errege Dekretuan aurreikusitakoa aintzat hartuta.

**Ogasun, Ondare eta Kontuen Informazio Batzorde Bereziak** egokitzen jo du praktikaturako likidazioak onestea eta arauz ordainaraztea.

### **OSOKO BILKURAREN ERABAKIA**

Udalaren Osoko Bilkurak **aho batez erabaki du** kredituak aldarazteko lehenengo espedientea onetsiko dela, konprometitu gabeko gerakin likidoaren pentzura, Ogasun, Ondare eta Kontuen Informazio Batzorde Bereziak emandako irizpenean adierazi den bezala.

## **II.- UDALAREN OSOKO BILKURAK UDAL GOBERNUAREN KUDEAKETARI EGITEN DION KONTROLA ETA JARRAIPENA**

**8.- ALKATETZA-UDALBURUTZAREN DEKRETUAK ETA TOKIKO GOBERNU BATZARRAREN AKTAK, 2010-02-18tik 2010-03-17ra.** Toki Araubideari buruzko Oinarriak arautu zituen apirilaren 2ko 7/1985 Legeko 46.2.e) artikuluan, apirilaren 21eko 11/1999 Legeak emandako idazkuntzan, eta azaroaren 28ko 2586/1986 Errege Dekretuak onetsi zuen Toki Erakundeen Antolaketaren, Funtzionamenduaren eta Araubide Juridikoaren Erregelamenduaren 42. artikuluan ezarritakoaren arabera, bilkurako espedientean agertzen dira, gero dagokien lekuan arxivatzeko kalterik gabe, epigrafean aipatutako epealdian Alkatetzak emandako dekretuen kopiak azter ditzaten.

Udalaren osoko bilkurak Alkatetza-Udalburutzaren dekretuen eta Tokiko Gobernu Batzarraren akten (espedientean agertzen direnak) berri izan du.

### **9.- PRESAKO MOZIOAK:**

#### **PP-K AURKEZTUTAKO LEHENENGO MOZIOA LAMIAKOKO ETORKIZUNEKO HUA EGITEKO LANETAN ZUNDAKETA ETA KONTROL ARKEOLOGIKOAK EGITEARI BURUZ.**

**Xabier Olabarrieta Arnaiz jaunak**, Leioako Udalean **Alderdi Popularra Udal Aldeko Bozeramaileak**, osoko bilkuran eztabaidatzeko hurrengo hau aurkeztu du

##### **MOZIOA**

Lamiakoko etorkizuneko HUAren lanetan eta inguru honetan aurreikusitako eraikin eta azpiegiturak zundaketa eta kontrol arkeologikoak egiteari buruz.

##### **JUSTIFIKAZIOA**

Lamiakoko aldea Nerbioi-Ibaizabalaren beheko bokalean mendeetan zehar gertatutako lur eta hareen pilaketek osatuta dago, eta XX. mende hasierara arte padura eta hareatzen aldea izan zen.

Ezaugarri hauek diela kausa oso litekeena da, jalkinen artean, itsasontzien hondarrak eta giza jatorriko era guztietako objektu eta egiturak egotea, korronteak eraman eta mendeetako lokatzek estalita. Horregatik, interes arkeologiko berezia duen alderdia da.

Hurrengo urteotan Lamiakoko aldean interbentzioa egin behar dute Hondakin Uren Araztegia (HUA), parkeko gunebat eta balio naturaleko gunebat, bai eta hainbat azpiegitura eta eraikin ere, bertan kokatzeko.

Komenigarria da ekimena hartzea, obrei ekin baino lehenago, zundaketa arkeologikoak egiteko, eta hauetan zehar kontrol arkeologiko arretatsua egiteko, interes handiko aurkikuntzak lan hauetan deskuidu, ezagupenik ez edo desinteresagatik suntsituta gerta ez daitezten.

Gogorarazi behar dugu ezen, itsasora zabaldutako itsasadar baten estuarioa bezala antzeko potentziala duen gunebatean eta lan batzuk egiten zituaztenean ere, Gernikan Urbietako kroskoa gertu zela, egun Arkeologia Museo berriko harribitxia dena.

Horregatik guztiagatik, Leioako Udalaren Osoko Bilkurak "arduradun edo eskudun diren administrazioei eskatzen die Lamiakoko HUAren etorkizuneko lanetan, hauen aurretik, zundaketa arkeologikoak egitea bultzatzeko Lamiakoko padura eta erribera zaharretan eta HUAren, eta aurreikusitako parke, eraikin eta azpiegituren, lanetan zehar arkeologiako kontrol eta jarraipen arretatsua egiten dituztela zaintzeko".

#### **EZTABAIDA:**

**PPko Arturo Aldecoa Ruiz jaunak** esandakoaren laburpena:

Mozio hau aurkeztu den dugu Leioarako oso interesgarria den ekimena biltzeko, bere kanpoko ezagutza sustatzeko eta Leioa kasu honetan jatorri arkeologikokoa izango

liratekeen kultur ondasun interesgarriak dauden tokien artean jasotzeko, herrirako onura orokorra lortuta.

Bizkaian, Espainia eta Europako beste toki batzuetan bezalaxe, ibai eta itsasaldietatik datozen jalkinek osatutako aldeetan edozein motatako obrak egiten direnean, Lamiakoko kasua izan daitekeen bezala, kroskoak, orain dela mendeetan eraikitako eta batzuetan uretaratzera iritsi ez diren, beste batzuetan korronteak eraman zituen edo leku horretan gainkargatik edo ekaitzen ondorioz hondoratu ziren itsasontzien hondarrak bezalako objektu interesgarriak agertzeko aukera dago.

Krosko hauen agerpenak zabalkunde handia izaten du eta, adibidez, Urdaibain Urietako krosko ospetsua agertzeak eragin du, arkeologiari dagokionez, Urdaibai eta Bizkaia gunen interesgarrien mapetan agertzea, izan ere, XV. edo XVI. mendeko itsasontzi bat, baina Bikingoen ontzigintzako eraikuntzatik oinordetutako barruko egitura duena, benetako bitxikeria izan da eta zorte handia izan da berau aurkitu dutenentzat eta aurkitu duten herrirako.

Gai hau zaintzeko, obra bat hasteko momentuan, oso garrantzitsua da tokian lan egiten duenak ager daitekeena ezagutzea eta garaiz gelditzea, izan ere, Urbiatoko kroskoaren kasuan, erdia falta da lan egiten ari zirena ez zirelako jabetu agertutakoaz, eta beste toki batzuetan gertatu da kroskoak makinen ekintzaz suntsitu dituztela eta ez langileen erruagatik, egitura ahulak eta, agertzen direnean direnaz jabetu ezean, erraz suntsitzen direnak direlako baizik. Horregatik, hain zuzen ere, oso garrantzitsua da arkeologoak egotea, hauek ager daitekeena antzemateko.

Bizkaiko Aldundiak dirutza handia inbertitu zuen agertu zen kroskoaren zatia tratatzeko eta egun Arkeologia Museoko harribitxietako bat da, Bilboko Ontzi Museokoa izan zen bezalaxe.

Esan duenez, Arkeologoei, baita Urbietako kroskoarenei ere, galdetu die eta adierazi dute kroskoak egoteko aukera handia dagoela, arraste eta jalkineko gunea delako, eta, ondorioz, adi egoteak merezi du badaude ere eta, horrela bada, komenigarria izango litzateke zundaketak egitea, 2x2 edo 4x4ko koadrikulak oro har, eta egiten diren analisisen arabera Lamiakoko aldearen egitura bertikala ezagut daiteke; honek hareatza eta lokatzen sakontasun izugarria duelako eta baliteke kroskoak edo hondar arkeologikoak egotea Erromatarren garaitik XX. mende hasierara arte.

Horrek guztiak justifikatzen du lan egin behar den bakoitzean adituren bat egotea zortea dagoen ikusi eta Leioa eta Lamiako historia eta arkeologiako liburuetan sartzeko. Ez dugu ahaztu behar Bilboko itsasadarrean burututako lanetan anforak agertu direla, eta hori hainbat denbora igarota jakin dugu aurkitu zituenak eraman zituelako eta Portugaleten, esate baterako, txanpon erromatarrek agertu dira. Horrela bada, hori guztia jakinda, Lamiakoko ezaugarriak direla kausa gai hau kontu handiz zaindu behar da.

Bizkaiko Batzar Nagusietan proposamen hau babestu dute, dagokion Batzordean aurreratu dutelako, lehenik hemen aztertzea hobe izango zen arren.

**EB-Berdeak taldeko Iñaki Gomendiourrutia Sáinz jaunak** esandakoaren laburpena:

Urgentziarekin ados nago, lanei ekin baino lehenago gai hau aztertzea ona delako. Gainera, emandako azalpenengatik aldeko botoa eman behar duela esan du.

**PSE-EEko J. Alfonso López Arevalillo jaunak** esandakoaren laburpena:

Izan ere, eztabaida beharrezko instantzietan dagoeneko egin dela esan du eta urgentziari zein moziari aldeko botoa eman behar dietela gaineratu du.

**EAJ-PNVko Eneko Arruebarrena Elizondo alkate jaunak** esandakoaren laburpena:

Íñaki Gomendiourrutiak aipatzen zuenarekin bat etorriz, entzunaldi publikoko aldia bukatuta, espedientea Estatuko Abokatuari igorri behar zaio eta honek Iparraldeko Konfederazio Hidrografikoari eta honetatik Ingurumen Ministerioari berriro bidaliko litzaioke proiektua onartu aurretiko ingurumeneko inpaktuaren deklarazioaren mende jartzeko. Hori dela kausa, esan duenez, PPko taldearen ordezkariak aurkeztutako planteamendua onartzeko momentu egokia da.

Azken batean, urgentziari zein mozioari aldeko botoa eman behar dietela adierazi du.

Eztabaidaren ondoren gaia bozkatzeko ipini da. Hona hemen bozketaren emaitza:

### **PRESAKO BOZKETA**

Azaroaren 28ko 2.568/1986 Errege Dekretuak onetsi duen Toki Erakundeen Antolaketaren, Funtzionamenduaren eta Araubide Juridikoaren Erregelamenduaren 91.4 artikuluan xedatutakoa oinarritzat hartuta, mozioaren premiari buruzko bozketa egin da. Horrenbestez, Udalaren Osoko Bilkurak gai horren **premia onestea** erabaki du, eta jarraian gai horri buruzko eztabaida eta bozketa egin da.

### **BOZKETA ETA OSOKO BILKURAREN ERABAKIA**

Udalaren Osoko Bilkurak, bilkuran zeuden zinegotzi guztiek emandako **aldeko hemeretzi botoen bidez**, erabaki du PPK aurkeztutako mozioa onartzea Lamiakoko HUaren etorkizuneko lanetan arduradun edo eskudun diren administrazioei eskatzeko, lan hauen aurretik, zundaketa arkeologikoak egin ditzaten Lamiakoko padura eta erriberan eta HUaren, eta aurreikusitako parke, eraikin eta azpiegituren, lanen garapenean zehar kontrol eta jarraipen arkeologiko arretatsuak egiten dituztela zaintzeko.

## **10.- ESKAERA ETA GALDERAK.**

### **LEHENENGO GALDERA:**

**PSE-EEko J. Alfonso López Arevalillo jaunak** esandakoaren laburpena:

Martxoaren 19an (larunbata) prentsan agertu zen albisteari buruzkoa da. Honetan aipatzen da Kontuen Epaitegiak, "Kontuen Epaitegiak Leioa zentsuratzen du" izenburu asaldagarriaren bidez, "Aurreikusitako Adjudikatzeko Prozedurak, jatorrizko aurrekontua ehuneko oso nabarmenetan aldatuta", esaten zuen bezala, baztertu dituzten hainbat kontratazioen berri izan duela.

Talde Sozialistak nahi du ezen, hurrengo Batzordean azalpen xehatuagoa edukitzea alde batera utzita, alkatea izatea, prentsaren bidez jakiteagatik berankorra izan arren, lasaitzen duen eta alderdi demokratikoen artean normaltasun instituzionalekoak izan behar diren informazio mota hauek dagozkien batzordeetara bideratzen saiatzen den lehen ikuspegia ematen duena, horrela obskurantismoa egon daitekeelako sentipena saihesteko.

### **BIGARREN GALDERA:**

**PSE-EEko J. Alfonso López Arevalillo jaunak** esandakoaren laburpena:

Aurrekoa bezalaxe, Batzordean Leioako Udalak Rekalde Plazako 4.ean dituen lokalengatik Jabe Erkidegoaren kuotak 2007. urtetik ordaindu ez izanaren arrazoari buruz gaur ematen dutena baino azalpen xehatuagoa ere nahi dute.

Partaidetza-kuota %49,81a dela kontuan harturik, egoera honek gainerako auzotarrei dakartzkien kalteak erraz uler daitezkeela ere gaineratu du.

### **LEHENENGO ESKAERA:**

**PSE-EEko J. Alfonso López Arevalillo jaunak** esandakoaren laburpena:

Eske honen bidez Alkatetzari konpromisoa eskatu dio osoko bilkuren aktak gure web orrian argitaratzeko delako osoko bilkura egin eta hilabete eta erdira, hau da, gehienez ere, hurrengo osoko bilkuran behin betiko onartu osteko 15 eguneko epearen barruan.

Eske honen justifikazioa dago herritarrei egun informazioa jasotzen duten atzerapenean, bai eta hauekiko interakzioa hobetzeko beharrea ere. Esan duenez, argitaratutako azkeneko osoko bilkura 2009. urteko azarokoa da eta gure eskearen arabera 2010. urteko otsailaren aktaren argitalpena bihurtik aurrera prestatzen ariko lirateke.

Sinatzen duen idazkariak, **Javier Bolinaga Lekue jaunak**, adierazi du atzerapena, batez ere, gertatu dela aurrekontuak onartu zituzten 2009. urteko abenduko osoko bilkura transkribatzea oso zaila izan delako, transkripzioa ia-ia hitzez-hitzezkoa izaten saiatzen baita, ahoz adieraztean gertatzen diren akatsak zuzenduta, baina gainerako osoko bilkurak azkarrago transkribatu ahal zirela. Esan duenez, Aste Santuan eta Pazkoan oporrak hartzen ez dituen saiatuko da azkeneko osoko bilkuren transkripzioak aurreratzen.

Halaber, adierazi ere egin du osoko bilkurak izapidetzen direna, administrazioko prozedura berehala gertatzen dela, denbora eskatzen duena eztabaidak transkribatzea dela.

**EAJ-PNVko Eneko Arruebarrena Elizondo** alkate jaunak esandakoaren laburpena:

Osoko Bilkuren transkripzioaren gaiari dagokionez, esan du azalpena idazkariak dagoeneko eman duela eta bera hemen dagoela izaera politikoko kontuen erantzuteko.

Bigarren galderari dagokionez, esan du Udalak ez dituela kuotak ordaintzen eskuduna den Administrazio Orokorreko Teknikaria aurka dagoelako, hain zuzen ere, eta, bere iritziz, funtzionario hau izango dela, ondorioz, beharrezko azalpena eman beharko duena.

Ez da , ondorioz, esan duenez, borondate politikoko kontua, txosten tekniko batekin lotutako gaia baizik.

Lehenengo galderari dagokionez, adierazi du txostenaren berri eman behar duten tokia Ogasuneko Batzordea dela eta oraindik ez badute egin denbora kontuagatik izan dela. Edozelan ere, adierazi du larria iruditzen zaiola ezen, Kontuen Epaitegiaren txostena Udalean erregistratu eta bi egunetara txosten hori prentsari ezkutuan ematea. Ildo beretik, gaineratu du Kontu-hartzaileak oraindik ezin izan duela aipatutako txostena irakurri eta berau, amatasunagatiko lizentzia badu ere, batzuetan bertaratzen dela baina ez duela denbora materialik izan txostenaren 90 orriak irakurtzeko. Eta aipatutako txostena dagoeneko prentsari ezkutuan eman diotela berriro nabarmendu du.

Bestaldetik, adierazi du aipatutako txosten horren kopia idazkariak eta berak baino ez dutela.

Azaldu du ulertzen duela gaia Ogasuneko Batzordean aztertu behar dutela eta Kontu-hartzaileak esku hartu behar duela, organo fiskalizatzailearekin harremanetan gehien egon dela hau izan delako. Bestaldetik, Kontuen Euskal Epaitegiarekin informazioa prentsari ezkutuan ematen dioten lehenengo aldia ez dela berriro nabarmendu du.

Azkenik, azaldu du ez dutela ahaztu behar berau Udalean sartu den dokumentu publikoa dela eta egokia den administrazioko izapidetzea eman behar diotela. Horrela, gaineratu du ulertzen duela Ogasuneko Batzordean aztertzen dutena barne hartzen duela baina berriro azpimarratu du bi egun eskasetan berau prentsari ezkutuan eman diotela eta hura, Leioako Alkatea den aldetik, ez dela izan ezkutuan eman duena, izan duen oihartzuna kontuan harturik oso ondo egin zezakeela.

### **HIRUGARREN ESKAERA:**

**PPko Xabier Olabarrieta Arnaiz jaunak** esandakoaren laburpena:

Alderdi Sozialistaren Bozeramaileak agertutako gaia aipatu du, Kontuen Euskal Epaitegiak Udalaren 2008. urteko Kontu Orokorraren fiskalizazioaren laburpenari edo txostenari egiten dizkien salbuespenak alegia.

Esan duenez, txostenaren atalik garrantzitsuenak ezagutzeko aukera izan dute, Kontuen Epaitegiaren beraren web orrian dagoelako eta, ondorioz, edozein herritarrak eskuratu ahal duelako.

Adierazi duenez, ulertzen dute aipatutako txostenak Ogasuneko Batzordearen bilkura monografiko eta bakarra eska dezakeela eta, zentzu horretan, bere eskaera izan da egokitzen jotzen dutenean deitzeko gaiaren gaineko azalpen xehatuagoak eman ahal izateko, txostena berak Epaitegiak planteatzen dituen salbuespenei erantzuteko Udalak aurkeztutako alegazioak biltzen dituen arren eta horiek ezagutu arren, hori ez da oztopo, esan du, Ogasuneko Batzordean aztertzeke eta adierazi du aste honetako Batzorde horren bilkuran gai honi aipamenean bat egitea ere ondo egongo zela, baita taldeei gutxienez azalpenen baten kopia banatzea ere, horrela lasaiago gelditzeko gaia aipatu ahal izateko osoko bilkura hau egin arte itxaron behar gabe.

**EAJ-PNVko Eneko Arruebarrena Elizondo** alkate jaunak esandakoaren laburpena:

Esan duenez, iruzkina ulertzen du baina, berriro adierazi du, espediente bat gehiago balitz bezala tratatu behar dutela, are gehiago bertako zerbitzu teknikoei lanari erreferentzia egiten dion dokumentua denean. Horregatik, adierazi du dagokion tratamendua eman behar diotela Ogasuneko Batzorde batean bukatuko den arren.

Azpimarratu du Kontu-hartzailearen iritzia garrantzitsutzat jotzen duela eta, gainera, kontuan hartu behar dela txosten hauek ez direla Legearen taulak. Esan duenez, Kontu-hartzaileak zein Idazkaritza eta udal taldeak aplikazioetako askotan ados egon daitezke edo ez eta gaineratu du bera bat datorrela Epaitegiaren kontsiderazio askorekin eta beste askorekin ez, ez delako ahaztu behar, bere iritziz, teknikari espezializatu batzuek egin dituztela baina Udalak ere horrelakoak dituela eta denbora nahikoa eman behar dela gaia sakon aztertzeke. Azkenik, adierazi du ez dela ahaztu behar dokumentuak, bukatzeke, hainbat gomendio eta iritzi agertzen dituela eta hor gelditzen dela eta ez duela bide gehiagorik ez Epaitegiaren aldetik ezta beste inoren aldetik ere.

### **LAUGARREN ESKAERA:**

**PSE-EEko Juan Carlos Martínez Llamazares jaunak** esandakoaren laburpena:

Eskaera hau aurreko osoko bilkura batean egin da. Honetara alkatea ezin izan zen etorri eta Lehen Alkateordeak erantzun behar izan zuen. Eskera Informazioko Batzordeen periodikotasunari buruzkoa da.

Adierazi du ulertzen duela 2007. urteko uztailaren 12ko osoko bilkuran adierazitakoa. Esan duenez, bertan adierazi zuten bilkurak, gutxienez ere, hilabetean behin egin behar zituztela eta erantzun zieten 1986. urteko Antolaketa, Funtzionamendu eta Araubide Juridikoari buruzko Araudiarekin informazioko batzordeek udal osoko bilkuraren berezko gaien gaineko irizpenak baino ez zituztela eman beharko eta, bere iritziz, berau kontraesankorra dela jo daitekeenez, esan du uste duela espezialitateko printzipioagatik, arau bat ezarri badute eta hileko bilkura bat egitera behartzen baduela, bada, bete behar dela osoko bilkuraren gaiak aztertzen diren kontuan hartu gabe. Horrela, adibidez, Ogasuneko Batzordeak, aipatu duenez, hilabete batean hiru bilkura egitera iritsi da eta osoko bilkurarenak ez ziren baina informazio-arreta mantentzea ahalbidetzen duten gai asko aztertu dituzte.

Azken batean, adierazi du bere ustez beraiek bere buruari eman eta 2007. urteko uztailaren osoko bilkuran onartutako araua bete behar dutela.

**EAJ-PNVko Eneko Arruebarrena Elizondo** alkate jaunak esandakoaren laburpena:

Eskaera hau Batzordeburu guztiei helarazi beharko zizkietela esan du.

Hala eta guztiz ere, esan du uste duela ikuspuntua apur bat igo behar dela, hau da, bere garaian ezarritako bilkuren erregimena edozein dela ere, Batzordeen funtzionamendu-erregimena, oro har, ikusi eta horrela inguruko bestelako Udalek mantentzen dutena alderatu beharko litzatekeela.

Hark uste du Batzordeetan teknikariek gainen gaineko informazioa soberan ematen dutela eta arauen interpretazio malgua egin behar dela eta, horrela, ikusiko dela Batzordeetan aurkeztu beharko ez ziren gai asko aurkezten direla. Gainera, adierazi du edozein zinegotzik Udal Teknikari batengana jo dezakeela eta edozein gairen gaineko azalpenak eska ditzakeela, Batzorde baten bilkura batetik kanpo. Eta berriro adierazi du Udalaren funtzionamendua inguruko Udalenarekin alderatzeko.

**PPko Arturo Aldecoa Ruiz jaunak** esandakoaren laburpena:

Herri Kontuen Euskal Epaitegiaren gaia aipatu du, izan ere, Xabier Olabarrieta jaunak adierazi duen bezala, erakunde honek onetsitako txostenak modu automatikoan interneteko sarean jartzen dituela eta sms bidez abisuak ere eduki ohi dituztela interesdunei, kazetariei oro har, argitaratzen dutenaren berri emateko. Horregatik, esan du bere ustez ez dutela informazioa ezkutuan eman, baizik eta kazetari batek HKEEren web orrira jo duela.

Esan duenez, jakin badaki aipatutako Epaitegiaren edo Estatuko Herri Kontuen Epaitegiaren txosten bat dagoenean beti daudela ondo edo gaizki iruditzen zaizkigun gaiak, baina komeni dela gomendioei kasu egitea. Ildo horretatik, anekdota moduan, adierazi du orain dela urte batzuk PPren hauteskunde-kanpaina batean aterki merke bat erori zuela euria ari zuelako eta hautagaia bustitzen ari zelako, eta Estatuko Aldizkari Ofizialean bukatu zutela Kontuen Epaitegiaren errieta batekin 200 pezeta inguruko euritako bat erostea erabakitzeagatik. Horregatik, aipatu duenez, egun horretatik, euria barra-barra egin eta hautagai bat itotzear egon arren, aterkia erostea debekatu dute. Azken batean, esan du Kontuen Epaitegiaren gomendioei kasu egin behar zaiela, ados egon ez arren.

**EAJ-PNVko Eneko Arruebarrena Elizondo** alkate jaunak esandakoaren laburpena:

Adierazi du Epaitegiak egindako egozketetako bat dela eskultore batik epez kanpo ordaindu zaiola, hau da, kontratuak esaten bazuen %60a formalizatzeko orduan ordaintzen zaiola eta %40a obra ematea, alderantziz egin zela: hasieran %40a eta ondoren %60a, eta honek Udalarari onura txikia ekarri arren, hutsegitea dela adierazten duela.

Bestaldetik, esan duenez, egindako gomendapenak, hauek ez betetzeak erantzukizun penaka ekarri ezean, interpretagarriak dira eta Epaitegiaren iradokizun batzuekin ez dagoela ados azaldu du eta udal zerbitzuek, erabaki bat berriro proposatu behar izanez gero, aurrekoaren zentzu berean hartuko zutela gaineratu du, Epaitegiaren irizpidea bestelako bat bada ere, interpretazio kontua da eta.

Azkenik, esan du uste duela Martín Villa zela Kontuz! guztiok lurrera niretarrak datoz eta” esaten zuena, eta horrekin adierazi nahi izan du norberak etsaiak dituela kideko komunikabideetan eta adiskideak horrela ez direnetan, eta ziurtatu du informazioa ezkutuan eman dutela eta azaldu du hori dakiela kideko komunikabideetan dituen lagunei esker.

### **BOSGARREN ESKAERA:**

**PPko Xabier Olabarrieta Arnaiz jaunak** euskaraz esandakoaren laburpena:

Adierazi du gai hau aurreko osoko bilkura batean azertu behar zutela baina ez zutela horrela egin alkate jauna ez zegoelako. Gaia, esan duenez, pertsona batzuek udaletxearen kanpoaldean eragin zituzten istiluei buruzkoa da. Istilu hauen bidez osoko bilkuraren garapena zaildu zuten eta alkate jaunaren hitzak eta osoko bilkuran egindako adierazpen guztiak ondo entzutea eragotzi zuten.

Gai honi dagokionez, esan duenez, alde batetik alkate jauna zoriondu nahi zuten udal lokal bat erakunde terrorista bat babestu edo protestatzeko ekintza bat egiteko hartu zutenak aterarazteko jarduketa bizkor egiteagatik baina, bestaldetik, adierazi du bere iritziz alkate jaunak Osoko Bilkuran izandako jarduketa ez zela onena izan, izan ere, kanpotik eraso egon zen, leihoetan kolpeak emanez eta oihuen bidez, eta bere iritziz, esan duenez, egokiena aipatutako eraso egokitza jotako era erabiliz bukatzen saiatzea izango zen baina, jakina, jarraitzen utzi gabe.

Adierazi du talde politiko demokratikoei eta gizarteak dagoeneko barneratu dutela portaera hauen aurrean erantzunik onena “zero tolerantziarena” dela eta dagoeneko ez duela balio bizikidetzari egindako irainak eta erasoak jasatea, egin izan den bezala, eta adierazi du bere ustez zero tolerantziako irizpide hori, egun horretako goizeko utzaraztearekin egin bezala, alkate jaunak arratsaldeko istiluetan ere aplikatu behar zuela.

Halaber, osoko bilkuren gelaren kanpoaldean segurtasun handiagoa bermatzeko egin beharreko pausoak zein diren ere planteatzen direla esan du.

**EAJ-PNVko Eneko Arruebarrena Elizondo** alkate jaunak esandakoaren laburpena:

Adierazi du udal bizitzak, denbora errealean, film baterako emango lukeela baina ezinezkoa dela eguneroko bizipenak bozeramaileei eta gainerako korporazio-kideei helaraztea, berehala egitea, beroaldiko momentu batean egiteko beharra senti daitekeen arren.

Jarraian, egun horretan gertatutakoa kontatzeari ekin dio, esan duenez, egun horretan zehar xehetasun batzuk Bozeramaileei jakinarazi zizkion arren. Azaldu du hasteko osoko bilkuraren eztabaida antolatzea alkatearen eskuduntza dela eta Korporazioko kideak arriskuan zeudela ikusiz gero beste soluzio bat hartuko zuela. Azaldu du egoera ez dela eroso izan baina iruditu zitzaioela bidezkoena osoko bilkura zeuden tokian bukatzea eta ez beste gela batera joatea erosoago egoteko. Esan duenez, egon ziren istiluak bestelako Gizarte Demokratiko batzuetan ere egoten direla, eta hauetan irainak eta laidok ere badaudela, baina demokraziak jasaten dituela eta egoten badakiela horrelakorik egon arren.

Harira joanda, adierazi du lokala, Udalak beste xede batzuetarako laga zion elkartearen baimenaz, okupatuta zegoela jakin zuenean Udaltzaingoari aginduak eman

zizkiola jarduteko eta honen Buruzagitzak esan zuela jarduteko protokolo batzuk zeudela Ertzaintza izan dadin egiten duela, bere eskumena baita.

Jarraian, adierazi du bera izan zela Eusko Jaurlaritzaren Herrizaingo Sailera deitu zuela eskudun Sailburuordearekin berba egiteko, orain arte alkate bati zegokion solaskidetza, protokoloaren arabera, sailburuordearena baitzen eta azkeneko hogeita hamar urteetan horrela jokatu dela gaineratu du.

Esan duenez, berehala Fernández de Arroyabe sailburuordea jarri zen eta honek, bidaia batean egon arren, ia berehala deitu zion eta adierazi zion babes zibileko gaiez arduratzen zela eta gai hau Hiritarren Segurtasuneko sailburuorde Iturriaga jaunari zegokiola.

Jarraitu duenez, sailburuordetza honekin harremanetan jarritakoan, gaiaren berri eman zioten sailaren pertsonak adierazi zuen arduraduna kanpoan zegoela eta dena zehatz-mehatz jakinarazteko sailburuordeari azaldu ahal izateko, era guztietako xehetasunak emanda, eta adierazi zuen sailburuordeak alkatetzara deituko zuela. Aipatu duenez, hori goizaren lehenengo orduan gertatu zen eta ez zen Segurtasuneko sailburuordearen deirik egon. Gaineratu du Udaltzaingoari Erandioko Ertzain-etxearekin zuzenean harremanetan jartzeko adierazi zionean Udaltzaingoaren Buruzagitzak jakinarazi ziola laguntzako ertzainik ez zegoela eta, ondorioz, Udaltzaingoak lokala utzarazteko aginduak eman zituela eta horretarako zerbitzutik kanpoko agenteei dei egin behar zietela adierazi du. Ondoren, azaldu du utzaraztea 14:15ean hasi bazen, hamar minutu lehenago Ertzaintzako zuzendari baten deia jaso zuela eta honek adierazi ziola ulertu zuela lan arloko gatazka zela, Udalaren barruko gaia alegia, eta jarduketa Udaltzaingoari zegokiola. Orduan, esan du azaldu ziola ez zela barruko lan-gatazka, bestelako izaerako gai bat baizik.

Elkarrizketa hau bukatuta, esan duenez, Udaltzaingora deitu zuen eta honek esan zuen utzarazia zuela eta Ertzaintzako sei agenteren presentzia egon zela. Handik gutxira udal taldeetako bozeramaileekin hitz egin zuela adierazi du eta hori guztia esan zuela. Era berean, azaldu zuen arratsaldean osoko bilkura zegoenez egokia iruditzen zitzaioela udaletxean Poliziaren zerbitzuaren bitartez sartzeko, egoera desatseginen bat egon zitekeelako.

Adierazi du bere kezka Erandioko Ertzaintza Etxean ere jakinarazi zuela eta Udaltzaingoak osoko bilkuren gelaren kanpoaldean Autonomiako Poliziaren agente gehiago egoteko eskaera berriro egin zuela, eta eskatu zuela zerbitzuaren furgoneta bat edo bi bertaratzeko. Esan duenez, azkeneko eskaera hau telefono bidez egin zuten eta erantzuna ezezkoa izan zela. Halaber, adierazi ere egin nahi izan du Udaltzaingoari eskatu ahal zaiola gauza direna arte baina eskumen batzuk ez direla bereak, horrela, esan du kasu honetan, bere ustez, eginkizuna soberan eta oso ondo bete zutela egunean zehar. Bukatzeko, adierazi du ulertu zuela istiluak sortzen ari zirenak osoko bilkuren gelatik kanpora botatzea ez zela Udaltzaingoaren lana eta horrela osoko bilkura egin zuten bezala egin zutela. Horixe da azalpena.

Eta iluntzeko bederatzia direnean, Alkatetza-Udalburutzak ekitaldia bukatutzat eman du, eta Idazkaritza honi dagokion akta egiteko agindu dio, adostutako eran onetsi dena. Hori guztia ziurtatu dut jarduneko idazkaria naizen honek.

O.E.  
ALKATEA

BEHIN-BEHINEKO IDAZKARIA,